

ALKATEAREN MEMORIA

1. SARRERA.

2016ko aurrekontua egiterakoan, Udal Gobernu berri bat aritu gara lanean; hau da, hauteskunderen ondoren sortutako gobernu berriko kideak aritu gara aurrekontua lantzen, baina lan hau egiterakoan, aurreko urtetako printzipioak eta irizpideak izan ditugu kontuan: pertsonengan eta hauen beharretan pentsatutako aurrekontua egin dugu.

Enplegua eta behar sozialak dira egun ditugun kezka nagusiak eta enplegu programetan eta zerbitzuetan jarri dugu arreta. Honekin batera aurrekontuko partida sozialak igo ditugu, bai hainbat programetakoak zuzenean edota arlo sozialean lanean ari diren eragileei zuzendutako baliabide eta diru laguntzetan.

Azpimarratzekoak dira batetik, parte hartze arloan egin dugun apustua, eta bestetik ingurumenean eta energia arloan jasotako ekarpena. Parte hartzeari dagokionez, azken urtetako aurrekontu parte hartzaileen ekimenarekin jarraitu eta hobetzeko asmoaz gain; parekidetasun sailetik abian jarri nahi dugun prozesua lantzeko dirua aurreikusi dugu, emakumeen etxea izango den egitasmo lantzen hastekoa, edota kultura arloan egin nahi dugun hausnarketa prozesua bideratzeko baliabideak. Bestetik ingurumenean bioaniztasunaren kontserbaziorako lanez gain, energia irakunkorrerako ekintza plana egingo du Udalak eta horretarako baliabideak aurreikusi ditugu.

Azkenik aipatu 2016rako inbertsioen atalean kiroldegiko igerilekuaren handitze eta berritze lanak izango duela partidarik handiena. Azpiegitura zaharra, txiki geratu dena, eta energi kontsumo handiko da egungo igerilekua, eta obrarekin berritu, handitu eta energetikoki kontsumoa murrizteaz gain, energia sistema aldatuko da, Udalaren energia sistema berriztagarri eta jasangarrien aldeko hautua jarraituz. Inbertsio garrantzitsua eta ezinbestekoa, gure herrian gehien erabiltzen dugun azpiegitura baita igerilekua, urtean zehar egun gehien irekita dagoena herritarren zerbitzura, herritar multzo zabalak erabiltzen duguna, jaio berrietatik hasi eta gure bizitzako azken urtetarainoko erabiltzaileak alegia; eta gure osasunarekin eta bizi kalitatearekin erabat lotuta dagoena. Beraz, uste dugu hernaniarron bizi kalitatearen aldeko inbertsio dela.

Hauxek bada, gure asmoak hurrengo urterako, aurrekontuan jasotakoa bideratuz, herritarren bizimodua eta beharrak hobeto asetuko ditugulakoan.

2. UDALA ETA MENPEKO ERAKUNDEAK.

Aurrekontua xehetasuna:

Aurrekontu bateratua (consolidado):	32.168.438,00
Hernaniko Udala:	26.576.356,00
Ongintzako Udal patronatua:	7.741.254,00
Ereñotzu Toki Entitate txikia:	368.033,00

3. UDAL AURREKONTUAREN DATU OROKORRAK.

- Datu orokorren laburpena:

	2016 Aurrekontua	2015 Has. Aurrekont.	Aldea 2016-2015
Gastuak Guztira:	26.576.356,00	25.768.367,00	807.989,00
Sarrerak Guztira:	26.576.356,00	25.768.267,00	808.089,00
Gastu arrunta:	22.743.086,00	22.061.118,00	681.968,00
	86%	86%	
Sarrera Arruntak	24.986.256,00	24.090.506,00	895.750,00
	94%	93%	
Aurrezpena inbertsionarako:	1.713.170,00	1.566.388,00	146.782,00
	6,9%	6,5%	

- Aurrekontuaren banaketa arloka:

GASTU SAILAK	2016	%	2015	%
UDAL ZORRA	547.574	2,1%	479.600	1,9%
UDAL ZERBITZU OROKORRAK	14.071.168	52,9%	13.564.160	52,6%
HIRIGINTZA ETA INGURUGIROA	867.397	3,3%	1.416.060	5,5%
POLITIKA SOZIALA	855.773	3,2%	705.674	2,7%
POLITIKA SOZIALA-ONGINTZA EKARP	2.154.872	8,1%	2.133.759	8,3%
HEZKUNTZA	1.416.201	5,3%	1.363.168	5,3%
KULTURA ETA JAIK	1.320.106	5,0%	1.252.853	4,9%
EUSKARA	1.031.612	3,9%	1.032.149	4,0%
KIROLA	3.018.200	11,4%	2.662.132	10,3%
TOKI GARAPENA ETA ENPLEGUA	468.255	1,8%	375.183	1,5%
EREÑOTZU EKARP	362.333	1,4%	356.669	1,4%
GOBERNU ORGANUAK	462.865	1,7%	426.860	1,7%
	26.576.356	100,0%	25.768.267	100,0%

Oharra: kontuan izan KIROLA arloaren pisua ezohikoa dela, 2015 eta 2016an Kiroldegan aurreikusi diren inbertsioengatik.

4. AURREKONTUAREN AZALPENA. SARRERAK.

- Kapitulukako laburpena:

SARRERAK KAPITULUKA	2016 AURREKONTUA	2015 Has aurrek	Aldea 2016-2015
1 Zergak	6.167.395,00	6.185.825,00	-18.430
2 Eraikuntza Zerga	353.000,00	271.311,00	81.689
3 Tasak	5.620.056,00	5.567.177,00	52.879
4 Transf arruntak	12.785.755,00	11.999.593,00	786.162
5 Ondare sarrerak	60.050,00	66.600,00	-6.550
6 Hirigintza sarrerak	1.057.000,00	545.500,00	511.500
7 Kapital transf	8.000,00	682.161,00	-674.161
8 Finantza aktiboak	100,00	100,00	0
9 Mailegua	525.000,00	450.000,00	75.000
GUZTIRA	26.576.356,00	25.768.267,00	808.089

- Zerga eta tasa alorrean, 2015 urteko oinarriak erabili dira. Tarifa igoerarik ez denez aurreikusi, aurreikuspenetan ez dago aldaketa nabarmenik.
- Jasotako transferentzi arruntetan, besteak beste, Foru Aldundiako Ogasun Sailak Udal Finantzakerako Foru Funtzarako egindako aurreikuspena jaso da. Horren arabera, aurten likidatutako kopuruen gain, %4,30eko igoera aurreikusten da.
- Seigarren kapituluan (Hirigintza aprobetxamenduak) GA.09 (Young Play) eremuko aurreikuspena jaso da.

5. AURREKONTUAREN AZALPENA. GASTUAK:

- Kapitulukako laburpena.

GASTUAK KAPITULUKA	2016 AURREKONTUA	2015 Has aurrek	Aldea 2016-2015
1 Langileria gastuak	8.335.107,00	8.114.337,00	220.770,00
2 Ond. arrunten eta zerb.en gastuak	9.967.405,00	9.591.092,00	376.313,00
3 Gastu finantzarioak	17.574,00	16.600,00	974,00
4 Transferentzia arruntak	4.253.068,00	4.100.366,00	152.702,00
5 Kreditu Globala	159.932,00	238.623,00	-78.691,00
6 Inbertsio errealak	3.206.441,00	3.134.460,00	71.981,00
7 Kapital transferentziak	106.729,00	109.689,00	-2.960,00
8 Aktibo finantzarioak	100,00	100,00	0,00
9 Pasibo finantzarioak	530.000,00	463.000,00	67.000,00
GUZTIRA	26.576.356,00	25.768.267,00	808.089

LANGILERIA GASTUAK:

- Soldatetan, %1eko igoera aurreikuspena, Estatuko Aurrekontu Legearen aurreproiektuak baimentzen duen gehiengo.
- Lanpostuen azterketa-balorazioa egitasmoa martxan dago. Berrikuspen horrek soldatetan izan dezaken eragina oraindik ez da ziurra. Horretarako, 300.000 euroko aurreikuspena egin da.

ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUEN GASTUAK:

- Kapituluhonetan 376.213 euroko igoera aurreikusten da. Laburbilduz, hauek dira nabarmenenak:
- Tokiko Garapeneko ekimenak. 50.000 euro. 2015eko hasierako aurrekontuetan ez zen jaso zeregin honetarako partidarik.
- Partehartze ekimenetan, 80.000 euro, ekimen berriak egingo baitira: Hernani erabaki, Emakume etxea, Kultura arloa...
- Ingurugiro alorrean, +76.000 kanpo lan eta azterketa berriak: Bioaniztasunaren kontserbazioa, Energia iraunkorreko ekintza plana, Zarata Mapa...
- Hezkuntza proiektuak, +46.000. "Ikastetxeetan konpententzia digitalerako" programa urte osorako planteatzen da, 2015ean ez baitzen hasierako aurrekontuan jaso.
- Kultur ekintzetan, +29.000.
- Mantenu lanetan hobekuntzak: herriko kaleak eta bideak +20.000; Parke eta lorategiak aparteko lanak, +17.000; Parke eta lorategien mantenu kontratua, +15.000; Mendietako Ur bideen mantenua, +18.000.
- Berdintasun alorra, +14.000: Emakume etxea, komunikazio estrategia, ikerketa beka...

- Administrazio eta funtzionamendu arrunteko hainbat partida egokitu dira 2015eko gastu maila ikusita: Administrazio orokorreko kontratuak, Informatika kanpo lanak, Bulego ekipoen mantenua, Iragarki ofizialak...

TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

- Kapitulu honetan 152.702 euroko igoera aurreikusten da.
- BETERRI Garapen Agentziari egin beharreko ekarpena egiteko partida irekia jaso da.
- Alokairua laguntzeko diru-laguntzak osotasunean jasotzen dira, 2015ean ez baitziren hasierako aurrekontuan jaso: 82.000 euro gazteentzat+82.000 euro helduentzat.
- AMHER elkartearekin Udalak duen hitzarmena, +19.000, hitzarmena indartzeko.
- ONGINTZAKo Osasun Patronatuari ekarpena handitzea, +25.000.
- Etxebizitzaren baldintzak hobetzeko (irisgarritasuna, zarata...) birgaitze obrak egiteko partida bat jaso da: 60.000 euro.

INBERTSIOAK

- Inbertsioetan 3.206.441 aurreikusten dira, 2015 urtean baino 71.981 euro.
- Inbertsio nagusia Kiroldegiaren bigarren fasea izango da, 1.700.000 euro, inbertsio guztien %53. Ekainetik abendura bitarte garatuko den obra.
- Azpiegitura eta urbanizazio lanak aurreikusten dira, 146.000 euro.
- Kaleko argikuntza eta ur instalazioetan azpiegitura berritzeak aurreikusten dira, 248.000 euro.
- Hirigintzako planeamendu tresna eta proiektuen garapenerako, 214.000 euro.
- Hernani Erabaki prozesutik eratorritako inbertsioak: 476.441 euro.
- Eta beste zenbait inbertsio hainbat zerbitzuen funtzionamendu arrunta bermatzeko: informazio prozesuetarako ekipoak, aplikazio informatikoak, funts bibliografikoak...

Inbertsio alorrean, Gobernu Taldeak baditu beste hainbat premia zehaztuak, aurrekontuan sartu ezin izan direnak. Horiekin, 2015eko aurrekontuaren likidazioa itxi eta diruzaintza gerakinaren bidez aurrekontuan txertatzeko asmoa du.

Hernanin, 2015eko abenduaren 11n
Alkatea, Luix Intxauspe Arozamena